



Futbolina

Noiz eta futbolina oso *demodé* zegoela uste nuenean, *coaching* modernoak darabilen erretorika indibidualistaren ikur izan daitekeela deskubritu dut: “Zu. Zu zeu zara zure garaipen nahiz porroten erantzule bakarra. Inork ez dizu sekula ezer eragozten. Zuregatik eta zuretzat” (2022, Instagram). Futbolin-txotxongi- loen antzera, zelaia partekatzen dugu, baina jokalaria bakoitza ezinbestean berea den espazio ukiezinean.

Zenbaitetan pentsatzen dut elkar ez molestatze horretan gehiegi tematzen garela. Adibide bat. Lagunartean esango banu inoiz haurdun egongo banintz etxean erdituko nukeela, baten batek, isilean, zalantzan jarriko luke burutazioa osasuntsua ote den. Baina, segurutik, nire kontua dela ebatziko luke, eta, ozenean, sentitzen dudan hori egiteko esango lidake: “Ardura dadila norbera bere *mobidaz*, propioarekin nahikoa dugu eta” (bide batez, gainera, lagunak bere konbikzioari eutsiko lioke inolako barne-gatazkarik gabe). Bake-bakean denak.

Naturazkoa dirudi barne-gatazkarik gabe bakeari eusteko tentazioa, eta zentzuzkoa deritzot mesfidati eta deseroso agertzea norbere arrazoibidea pitza daitekeela antzematean. Adibideari segika, egia da erditzea ospitalean artatu beharreko jazoera arriskutsua den us-tea hegemonikoa dela. Etxean erditze-ko hautuak derrigor eskatzen du oso oinarrizko ditugun ehunka kontzeptu

Ez dago modan
norbere epaia
zalantzan jartzea. Eta
ez da harritzekoa,
ze, berdingabe (eta
ukiezin) egiten gaituen
hori gurtu eta gurtu
jarduten dugu eguna

birdefinitzea. Kolokan jartzen du urteetan eraikitako diskurtsoa. Konbikzioen apokalipsia. Gakoa, ordea, sentitzen dugun ezerosotasun horrekin zer egin erabakitzea da.

Eskolan erakutsi ziguten berdinen arteko harremanaren funtsa dela parean dugun edonor arrazional, arduratsu eta kontziente gisa begiestea: bai ni eta bai zu bagara gure adierazpenak argudiatzeko nahikoa, eta prest gaude iritziz aldatzeko hizketaldiaren bilakaerak horretara behartzen bagaitu. Ulertu genuen besteari erabateko errespetua diogulako sortzen dela eztabaida, hain zuzen ere. Horregatik, agian, aspaldi honetan dezente iraingarria egiten zait zenbait solaskideren itxurazko begirunea.

Ez dago modan norbere epaia zalantzan jartzea. Eta ez da harritzekoa, ze, berdingabe (eta ukiezin) egiten gai-



ANA MENDIA
EMAGINA

tuen hori gurtu eta gurtu jarduten dugu eguna. Horrenbeste lan eta gero, noski, koherentea da gure esentzia babestea edozein erasoren aurrean. Hala igarotzen gara elkarren ondotik bata bestea urra ez dezan arreta handiz. Martxa honetan batera biziko gara, nahiz elkarrekin bizi ez. Nor bere baitan bilduta, marmarrean. Futbolinean kirtenari legez kanpo eragin eta jokalaria beren ardatzean jira-bueltaka geratzen direnean bezalaxe. Oparoa datorkigu nartzisismoaren uzta.

Eskerrak bestelako lurak ereiten dituzten. Lagun batek zera dio: “Gizabanakoa bere aurretiko zein haraindikoak diren hizkuntza, arau, teknologia eta prozesuen eskuetan, hauskorra, finitua eta osatugabea da, lurra(ldea)rekin ez ezik, beste izaki bizidun eta ez-bizidunekin txirikordatutako gizaberetxo zaurgarri, dependente, erlazional, iragazkor eta desjabetua”*. Alegia, elkar-urratze hutsa gara.

Batzuetan zalantza egiten dut ez ote garen errespetua nagikeria intelektuala-rekin nahasten ari. Beharbada zuzena da diotena, eta egungo hiriak ez dira tolerantziaren agertoki, axolagabekeriarena baizik. Hau bai apokalipsia. Dena den, ez luze pentsatu, nire *mobidak* baino ez dira eta. Portzierto, ebidentzia zientifikoak garbi frogatu du umea sutondoan izatea segurua dela. ●

*Mikel Urdangarin Irastorza, *Simone de Beauvoir. Norbanakoa eta burujabetza*, Jakin, 2021.